

GRADU-AMAIERAKO LANETARAKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN IKASKETA-GIDALIBURUA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua

2015ko uztailaren 17an egindako Ikastegiko Batzarrean onartu zen

AURKIBIDEA

GRADU AMAIERAKO LANAREN EZAUGARRIAK

- Deskribapena eta helburuak
- Gradu Amaierako Laneko jarduerak
- Gradu Amaierako Lan motak
- Gradu Amaierako Lanaren luzera eta egitura mota
- Antolakuntzako alderdi formalak

EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

ESTILO-GIDALIBURUA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Laneko irakasle eta ikertzaileen ikasketa-gidaliburuaren helburua Gradu Amaierako Lana zertan datzan deskribatzea eta haren antolaketako alderdi formalei buruzko informazioa ematea da.

GRADU-AMAIERAKO LANAREN EZAUGARRIAK

1. GRADU-AMAIERAKO LANAREN DESKRIBAPENA ETA HELBURUAK

Gradu Amaierako Lanean ikasleak proiektu, memoria edo ikerketa original bat egingo du banaka, zuzendari baten edo gehiagoren ikuskapenarekin. Lan horrek Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduko irakaskuntza-aldian eskuratutako prestakuntza-erdiak, gaitasunak eta trebetasunak barne hartuko eta garatuko ditu.

Gradu Amaierako Lanaren helburua zera da, graduan prestatutako ikaslea gai dela erakustea bere negozioa sortzeko, enpresen administrazio eta zuzendaritzaren eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen arloan zeinahi eginkizun egiteko edo emaitza interesgarriak eta originalak eskuratzeko bide emango dion ikerketa-proiektu bat gauzatzeko.

Gradu Amaierako Lana EAEko hizkuntzako ofizialetako batean (gaztelania edo euskara), ingelesez, frantsesez edo alemanez egin, aurkeztu eta defendatu daiteke, egindako eskaintzaren arabera, eta, betiere, hizkuntza horietan gaitutako epaimahaiak ezar badaitezke.

Atzerriko hizkuntzarekiko hizkuntz gaitasuna lortzeko, GRALaren % 40a aurkeztu eta defendatu beharko da ingeles, frantses edo alemanez.

Gradu Amaierako Lanaren zati bat edo osoa praktika-hitzarmen baten esparruan edo UPV/EHU ez den beste entitate edo erakunde batzuetan egin daiteke. Kasu honetan, lana, Unibertsitatez kanpoko langileek zuzendu ahal izango dutelarik. Baina, betiere, praktika-hitzarmen baten esparruan egiten bada, lanaren zuzendarikidea Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan irakaskuntza duen sail bateko irakaslea edo Eskolari atxikitako irakaslea izango da.

Gradu Amaierako Lana Jabego Intelektualeko Legeak babesten du. Hortaz, jabego intelektualeko eskubideen titulartasuna lanaren egileari dagokio, ikasleak onartutako Gradu Amaierako Lanaren izendapen-dokumentuan beste moduren batera ezarrita ez badago, indarrean dagoen araudian aurreikusitako moduren eta baldintzen arabera.

Gradu Amaierako Lana tituluari lotutako gaitasun orokorrak aplikatzera bideratuta egon beharko da, baita ikerketa arlo batean garrantzitsuak diren datuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko gaitzera ere, mota askotako gai garrantzitsuei

(ekonomikoa, soziala, juridikoa...) buruzko gogoeta barne hartzen duten iritziak emateko eta pentsamendu nahiz uste kritikoa, logikoa eta sortzailea garatzea errazteko.

2. GRADU-AMAIERAKO LANEKO JARDUERAK

Gradu Amaierako Lanak honako jarduera hauek barne hartuko ditu:

- 1) Lana egiteko beharrezkoak diren metodologia-jarraibideei buruzko orientazio-mintegiak.

Mintegiek ikasleak orientatuko dituzte ohiko gaiet buruz, hala nola galdera gakoak zehazteari, metodologiari, datuak biltzeko erabiltzen diren iturriek, baliabide bibliografikoei eta abarri buruz.

- 2) Banakako tutoretzak.

Irakasleek ikasleak hartuko dituzte tutoretza-orduetan.

Ikasleak lan autonomoa egingo du, bere zuzendariak gidatuta, Gradu Amaierako Lanaren garatzeko, entregatzeko, aurkezteko eta defendatzeko faseetan.

3. GRADU-AMAIERAKO LAN MOTAK

Irakasleak beste hainbat lan proposatu ahal izango ditu, hala nola:

1) NEGOZIO-PLANA

Ikasleak enpresa-proiektu bat garatu eta haren bideragarritasuna frogatu beharko du. Horren xedea ikasleak bideragarria den, erakargarria den eta gizarteari aberastasuna ekarriko dion negozioa sortzea da.

2) AHOLKULARITZA-LANA

Ikasleak erakunde, instituzio, enpresa edo enpresa mota baten benetako arazo bati benetako konponbidea proposatu beharko dio, espezializatutako edozein adarretan. Horrela, eta adibide gisa, hainbat azterketa egin ahal izango ditu: graduan ikasitako baina gure ekonomiaren eta enpresen errealitateko kasu zehatzei aplikatutako merkatu-, finantza-, kontabilitate- eta kudeaketa-azterketak.

3) IKERKETA-LANA

Ikasleak graduan ikasitako metodologia zientifikoa aplikatuko du. Lan hori egiteko, ikasleak gai interesgarri bat hautatu beharko du. Galdera baten edo gehiagoren bidez proposatutako arazo bat zehaztuko da. Ikaslea erantzunak ematen ahaleginduko da, ikasitako metodoak erabiliz, arrazonamendu logiko batean

oinarrirituta. Ikaslea ekonomia-errealitatea dinamikoa eta konplexua dela jabetzea da xedea.

4. GRADU-AMAIERAKO LANAREN LUZERA ETA EGITURA MOTA

1) LUZERA

Gradu Amaierako Lanak 18.000 eta 25.000 hitz arteko luzera izango du, Gradu Amaierako Lanak ezaugarri bereziak izateagatik aldagai horrek zentzurik ez baldin badu salbu.

2) EGITURA MOTA

Gradu Amaierako Lana pertsonala denez, ez da garapenerako eskema itxirik proposatzen; ikasleak eta haren zuzendariak diseinatuko dute lana.

Hala ere, Gradu Amaierako Lanak honako atal hauek barne hartu beharko ditu gutxienez: azala, aurkibidea, sarrera, garapena, ondorioak eta bibliografia.

a) Azala

Gradu Amaierako Lanaren azalean, honako elementu hauek agertu behar dute:

- UPV/EHUren logotipoa, goialdean.
- Ikastegiaren izena: Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola.
- Lan mota: Gradu Amaierako Lana.
- Izenburua eta azpititulua (hala edukiz gero). Izenburu on batek ulergarria, argia eta ordezkatzeko duen lanaren adierazgarria izan behar du. Azpititulua lana egin den ikuspuntua zehazteko erabili ohi da, eskuarki.
- Egilearen izen-abizenak.
- Zuzendariaren edo zuzendarien izen-abizenak.
- Lana egin eta defendatu den urtea.

b) Aurkibidea

Aurkibidean, lanaren zati guztiek eta zati bakoitza hasten den orriek agertu behar dute. Adibidea:

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. kapitulua.....	5
1.1. Atala.....	7
1.2. Atala.....	8

2. kapitulua.....	20
Ondorioak.....	47
Bibliografía.....	50

c) Sarrera

Sarreran, honako honek agertu behar du:

- Gradu Amaierako Lanaren helburuak; haren arloa, irismena eta mugak zehaztu behar dira.
- Galderaren egoera, hau da, gaiaren egungo egoera, gai hori hautatzearen baldintzak, etab.
- Gaiaren egokitasuna eta egileak gaia aukeratzearen arrazoiak.
- Erabilitako metodologia (elkarrizketak, inkestak, esperimentazioa, behaketa arrunta, bilaketa bibliografikoa edo dokumentala, etab.), kontsultatutako iturrien jatorri idiomatikoa, hura lortzeko balizko arazoak eta abar.
- Kapituluaren zerrendatzea eta deskribapen orokorra, baita azkenean aurkeztutako egituraren ikuspuntutik egindako justifikazioa ere.

d) Garapena (kapituluetan/ataletan/azpiataletan banatuta)

Gradu Amaierako Lana kapituluetan, ataletan eta azpiataletan egituratutako gaien bidez garatuko da, gaiaren garapenak bide ematen duen banaketaren arabera. Kapituluak osatzen duten lanaren mamia, eta horietan garatzen da aukeratutako gaia. Kapitulu kopurua gaiaren arabera aldatzen da. Kapituluak, berriz, ataletan eta azpiataletan banatzen dira. Kapituluak nahiz atalek eta azpiatalek izenburu argia eta dagokien kapituluaren edo atalaren adierazgarria eduki behar dute. Kapituluaren luzerari edo horietako bakoitzak eduki behar dituen orri kopuruari dagokionez, aldatu egin daitezke; nolahi ere, batzuen eta besteen artean oreka mantentzea gomendatzen da.

e) Ondorioak

Gradu Amaierako Lanean lortutako emaitzen azalpena dira ondorioak. Lanaren zati horretan, eskuratutako emaitzak, lortutako ondorioen balorazioa eta lantzeke gera daitezkeen eta hurrengo batean azter daitezkeen gaiak aurkeztu behar ditu ikasleak.

f) Bibliografia

Kontsultatutako lanen eta lanean berriaz aipatutako lanen zerrenda bat da bibliografia. Lan bakoitzaren amaieran aurkeztuko da eta erabilera-arau formalei jarraiki aipatuko da (APA, MLA, Harvard, ISO, etab.). Honako hauek sartuko dira, besteak beste: liburuak, kapituluak, aldizkariak, artikulak, biltzarren aktak eta web orriak.

5. ANTOLAKUNTZAKO ALDERDI FORMALAK

1) GRADU-AMAIERAKO LANAREN KOORDINAZIOA

Ikastegiko Batzarrak onartutako Gradu Amaierako Lanaren koordinatzailearen figura ezarri da; haren eginkizuna Gradu Amaierako Lanaren araudian erregulatutako izapideak eta prozedurak kudeatzea da eta Gradu Amaierako Lanaren Batzordearen buru da.

2012/2013 ikasturtean, Leire Urcola Carrera izendatu da Gradu Amaierako Lanaren koordinatzaile gisa.

2) GRADU-AMAIERAKO LANAREN BATZORDEA

Gradu Amaierako Lanaren Batzordea da Gradu Amaierako Lanari buruzko prozesu guztiaren kudeaketaz arduratzen den kide anitzeko organoa.

Gradu Amaierako Lanaren Batzordea Ikastegiko zuzendariak edo hark eskuordetutako pertsonak, Gradu Amaierako Lanaren koordinatzaileak, administrariak, irakasle eta ikertzaileen ordezkari batek eta ikasleen ordezkari batek osatuko du.

Kide horiek lau urtero berrituko dira, ikasleen kasuan izan ezik; azken horiek bi urtean behin aldatuko dira.

Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak honako eginkizun hauek edukiko ditu:

- a) Gradu Amaierako Lanaren ikasketa-gidaliburua egitea irakasle eta ikertzaileentzat eta ikasleentzat.
- b) Ikasleei Gradu Amaierako Lanaren irakasgaiaren izaeraren eta ezaugarrien berri ematea.
- c) Urtero, Gradu Amaierako Lanerako nahikoa gai eskaintzea.
- d) Urtero, Gradu Amaierako Lanerako gaien eskaintza onartzea.
- e) Ikasleei Gradu Amaierako Lanen gaiak eta zuzendariak izendatzea.
- f) Gradu Amaierako Lanen ebaluazio-epaimahaiak izendatzea.
- g) Lanak garatzean sor daitezkeen gertakari akademikoak konpontzea.
- h) Gradu Amaierako Lanean ikasleek lortutako emaitzen jarraipena egitea.
- i) Eskolako Batzarrak bere gaitasunen arloan ezarritako beste zeinahi eginkizun.

3) GRADU-AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARITZA

Gradu Amaierako Lanaren zuzendaria izango den tutore akademiko baten ikuskaritzapean edo zuzendaritzapean egin behar da Gradu Amaierako Lana. Gradu Amaierako Lanaren zuzendaria arduratuko da ikasle bakoitzari Gradu Amaierako Lanaren ezaugarriak azaltzeaz, lanaren garapenean ikaslea orientatzeaz, ezarritako helburuak beteko direla

bermatzeaz, jarraipena egiteaz eta defentsa egin aurretik txosten idatzi bat prestatzeaz. Azken horren kopia bat emango zaio ikasleari.

Gradu Amaierako Lana pertsona batek baino gehiagok zuzen dezake.

Gradu Amaierako Laneko zuzendaria Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan irakaskuntza duen sail bateko irakaslea edo Eskolari atxikitako irakaslea izango da.

UPV/EHUra lotutako doktoreek ere zuzendu ahal izango dituzte Gradu Amaierako Lanak; betiere, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan irakaskuntza duen sail bateko kidea den edo Eskolari atxikita dagoen zuzendarikide bat egonez gero.

Ikasle batek Gradu Amaierako Lanaren zati bat edo osoa praktiken hitzarmen baten esparruan edo UPV/EHU ez den beste entitate edo erakunde batzuetan garatzen badu, Gradu Amaierako Lana Unibertsitatez kanpoko langileek zuzendu ahal izango dute. Kasu horretan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan irakaskuntza duen sail bateko kidea den edo Eskolari atxikita dagoen zuzendarikide batek egon beharko du.

Zuzendutako lan bakoitzak 0,5 kreditu balioko du; arduraldi osoko irakasleek 6 kreditu jasan ditzakete gehienez, eta arduraldi partziala duten irakasleek, berriz, 3 kreditu gehienez.

4) GRADU-AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENAK

Gradu Amaierako Lanaren gaiak eta horiek egin eta defendatu daitezkeen hizkuntzak Gradu Amaierako Lanaren araudiko 5.3 atalean ezarritako baldintzak betetzen dituzten irakasleek, enpresek edo ikasleek beraiek proposatu ahal izango dituzte. Proposamen horiek Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak onartu beharko ditu.

Ikasturte bakoitzean gaien katalogo bat eskainiko da; horietako gai bakoitzak zuzendari bat eduki beharko du izendatuta. Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak Gradu Amaierako Lanen gai-eskaintza nahikoa bermatuko du, tituluan irakaskuntza duten sailei dagozkien irakats-betebeharrak kontuan hartuta.

5) GRADU-AMAIERAKO LANEN IZENDAPENA

Ikasleek Gradu Amaierako Lanen proposamenak egin ahal izango dituzte edo/eta irakasgaien matrikulatu baino lehen izendatu ahal izango zaie Gradu Amaierako Lan bat, baldin eta ikasketa-planeko 208 kreditu gaindituta izanez gero, horietatik, 168 kreditu oinarritzko zein derrigorrezko ikasgaienak izango dira eta gainontzeko 40 kredituak, hautazko ikasgaienak.

Gradu Amaierako Lan bat proposatzen duten enpresek ikasle bat hautatzeko aukera izango dute, lan hori egin dezan.

Ikasleek egindako proposamenak hautatzeko aukera izango dute irakasleek, zuzendari gisa izendatzeko; gehienez ere, irakasle eta deialdi bakoitzeko bi Gradu Amaierako Laneko mugarekin eta Gradu Amaierako Lanaren Batzordearen oniritziarekin.

Irakasle batek Gradu Amaierako Lan bat proposatuz gero, ikasle jakin bati izendatzea adostu ahal izango du; betiere, irakasle eta deialdi bakoitzeko Gradu Amaierako Lan bateko mugarekin eta Gradu Amaierako Lanaren Batzordearen oniritziarekin.

Aurreko ataletan adierazitakoari kalterik egin gabe, interesa duten ikasleek eskaintzen diren Gradu Amaierako Lanen gaien katalogotik interesatzen zaizkien gaiak aukeratu beharko dituzte, eta lehentasun-ordena bat ezarri beharko dute. Kasu horretan, Gradu Amaierako Lanen gaien izendapena Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak egingo du. Ikasle batek baino gehiagok Gradu Amaierako Lan jakin bat egin nahi izanez gero, ikaslearen ikasketa-espeditentearen batez besteko nota kontuan hartuta egingo da izendapena.

Ikastegiko Batzarrak ezarritako epean jakinaraziko zaio ikasleari Gradu Amaierako Lana izendatu zaiola. Ikasleak izendapen hori berretsi beharko du Ikastegiko Batzarrak ezarritako epean, izendapena jakinarazitako egunetik zenbatzen hasita.

Ikasle batek zuzendaria edo/eta gaia aldatu nahi izanez gero, Gradu Amaierako Lanaren Batzordeari eskatu beharko dio idatziz eta arrazoiak emanez, Ikastegiko Batzarrak horretarako ezarritako epean.

Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak zuzendariaren edo/eta gaiaren izendapena ez onartzeari eta horiek aldatzeari dagozkien eskaerak ebatziko ditu arrazoiak emanez, Ikastegiko Batzarrak horretarako ezarritako epean, eskaera-datatik aurrera.

Gradu Amaierako Lanaren Batzordearen proposamenez, Ikastegiko Batzarrak ikasturte bakoitzeko matrikulazio-aldia amaitu baino lehen onartuko eta argitaratuko ditu Gradu Amaierako Lanen proposamenak jasotzeko, Gradu Amaierako Lanen gaiak aukeratzeko eta Gradu Amaierako Lanen gaiak nahiz zuzendariak behin betiko izendatzeko epeak.

GRALerako esleitutako lanak eta zuzendariaren izendapenak bi akademi ikasturtetako iraupena izango du; epe hori behin igarota ikasleak lanarekin eta zuzendariarekin jarraitzeko eskaria egin ahal izango dio GRALeko batzordeari, zuzendariak horretarako beren-beregiko baimena emanda. Berritzen ez bada, ikasleak GRALa eta zuzendaria esleitzeko prozedura burutu beharko du, atal honetan ezarritakoari jarraiki.

GRALeko zuzendaria izendatu ondoren, zuzendaria behin betiko bajaran badago edo epe luzerako, GRALeko Batzordeak ordezkoa izendatu beharko du 15 eguneko epean, ikasleak edo sailak horren berri eman dionetik kontatzen hasita. Ordezkoa izendatzeko xedez, batzordeak kasuan kasuko sailari eskaria egingo dio adierazitako epe horretan ordezkoa proposa dezan.

6) GRADU-AMAIERAKO LANAREN EBALUAZIO-EPAIMAHAIK

GRALeko zuzendariak proposatuko diote GRALeko batzordeari bost irakasle osaturiko zerrenda, ebaluaziorako epaimahaiak osatzeko. Epaimahaiaren osaerak bermatu beharko du autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozein (gaztelania zein euskaraz) erabiltzeko aukera GRALa aurkeztu eta defendatzerakoan, edo eta ingelesez, frantsesez edo alemanez ere, GRALerako arautegiaren 2.5 atalarekin bat etorrita.

Ebaluazio epaimahaiak hiru pertsonak eta ordezeko batek osatuko dute, guztiak ikastegiari atxikitako irakasle. Gutxien dela, ebaluazio epaimahaiko kide bat izango da GRALaren gaiari loturiko sailekoa edo ingurukoa. GRALeko zuzendariak ezin izan daitezke beroriek zuzendutako GRALak balioesteko ardura duten epaimahaietako kide.

Epaimahai bakoitzean, lehendakari eta idazkari bana egongo da. Epaimahai bakoitzeko kideek izendatuko dute lehendakaria eta idazkaria; horiek kargu horien arabera jardungo dute jarduera guztietan.

Epaimahaiaren lehendakariari Gradu Amaierako Lanaren defentsa erregulatzea dagokio. Epaimahaiko idazkaria arduratuko da Eskolak Gradu Amaierako Lanaren ebaluazio-aktak behar bezala betetzeaz eta Eskolako administrazio-zerbitzuei entregatzeaz.

Ikasleak azalpena egin ondoren, epaimahaiak ikasleari jarri beharreko kalifikazioaz eztabaidatuko dute, irakaskuntza-gidan ebaluaziorako adierazitako irizpideekin bat etorrita eta zuzendariak egindako balioespen-txostena aintzat hartuta.

7) GRADU-AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

Ikasleek, kasu berezietan izan ezik, ADDI sistemaren bitartez Gradu Amaierako Lana entregatu beharko dute, Ikastegiko Batzarrak, edo hark eskuordetutako batzordeak, ezarritako epea baino lehen. ADDI sistema erabiltzen ez den salbuespenetan, lanaren memoria paperean eta euskarri informatikoan aurkeztu beharko da Eskolako idazkaritza zerbitzuan, lanaren izaerak beste bitartekoren bat eskatzen duenean salbu.

Gradu Amaierako Lana defendatu ahal izateko, nahitaezko betebeharra izango da ikasleak ikasketa-planeko gainerako irakasgaiak gaindituta izatea, Gradu Amaierako Lanaren nahitaezko irakasgaia salbuetsita.

Gradu Amaierako Lanaren defentsa zuzendariaren baimena jaso ondoren egingo da.

Ikasleak aurrez aurre defendatuko du Gradu Amaierako Lana.

Ikaslea mugikortasun programa batean badago eta programa horretan dagoela egiten badu Gradu Amaierako Lana, defentsa beste unibertsitatean egin ahal izango du, betiere, bi unibertsitateek aldez aurretik horretarako baldintzak zehaztuta badituzte.

Ikasle bakoitzak 15 minutu baino gehiagoko eta 20 minutu baino gutxiagoko denbora edukiko du defentsa egiteko; defentsa horretan, Gradu Amaierako Lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak aurkeztu beharko ditu. Ondoren, gehienez 15 minutuko tartean, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galderari, argibideei, oharrei eta iradokizunei erantzungo die.

Gradu Amaierako Lanaren defentsak taldeka egingo dira ikasturtean zehar bi denbora-tartetan, Ikastegiko Batzarrak urtero onartutako egutegiaren arabera. Salbuespenez, Ikastegiko Batzarrak denbora-tarte osagarriak gaitu ahal izango ditu aurrezkoek gainera, Gradu Amaierako Lanak defendatzeko.

Denbora-tarte horien baitan, Gradu Amaierako Lanaren Batzordearen esku egongo da hau: Gradu Amaierako Lanaren defentsa egiteko eguna, ordua eta lekua ezartzea eta argitaratzea; ikasle asko izanez gero, ikasleen aurkezpen-ordena ezartzea, eta parte hartzen duten ikasleei eta irakasleei informazio hori behar besteko aurrerapenez jakinaraztea.

EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

EBALUAZIOA

Irizpide orokorrak:

- Gaitasunen araberako ebaluazioa eta ikaskuntzako emaitzak.
- Faseen edo mugarren araberako pixkanakako ebaluazioa.
- Ebaluazio partekatua: Gradu Amaierako Lanaren zuzendaria eta Epaimahaia.

Ebaluazioa egiteko irizpideak eta horietako bakoitzerako haztapena honako hauek izango dira:

- Lanaren kalitatea: % 75.
- Aurkezpena: % 25.

EBALUAZIO-TXOSTENA: 1. MUGARRIA: "GAIAREN HAUTAKETA ETA PLANGINTZA"

GAITASUNA	ADIERAZLEA	BALORAZIOA
C1. Txostenak modu argian eta zentzuzkoan egitea, bidaltzea eta aurkeztea.	-Lana modu eraginkorrean bideratzen duten galdera edo/eta helburuak ezartzen ditu: lana behar bezala egituratzeko eta bideratzeko bide ematen duten galdera eta helburu funtzionalen multzo bat idatzi du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C2. Aukeratutako gaiari buruzko dokumentazio-bilaketa bat egitea.	-Aukeratutako gaiari buruzko dokumentazio-bilaketa bat egin du: dokumentazio-iturri esanguratsuenak identifikatuz eta aurkituz garatu du bilaketa.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C3. Pentsamendu analitikorako eta gogoeta kritikorako gaitasuna erakustea.	-Gradu Amaierako Lanaren funtsezko elementuak zehazten ditu: lanaren egitura zehaztasunez deskribatu du eta funtsezko elementuak laburbildu ditu.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
	-Lana egiteko faseak tenporizatu ditu: lana behar bezala sekuentziatu du, benetako aukeren eta eskakizun ofizialen arabera.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C4.Sormena, berrikuntza eta izaera ekintzailea garatzeko gaitasuna.	-Hainbat diziplinatako, iturritako edo arlotako ezagutzak sartzeko gai da, arazo edo egoera ezagunei edo ezezagunen aurrean ideia berriak sortzeko.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>

Gradu Amaierako Lanaren zuzendariaren oharrak	
--	--

EBALUAZIO-TXOSTENA: 2. MUGARRIA: “GARAPENA, JARRAIPENA” ETA “IKASLEAREN

BETEBEHAR FORMALAK”

GAITASUNA	ADIERAZLEA	BALORAZIOA
C1. Txostenak modu argian eta zentzuzkoan egitea, bidaltzea eta aurkeztea.	-Lana modu eraginkorrean bideratzen duten galdera edo/eta helburuak ezartzen ditu: lana behar bezala egituratzeko eta bideratzeko bide ematen duten galdera eta helburu funtzionalen multzo bat idatzi du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C3. Pentsamendu analitikorako eta gogoeta kritikorako gaitasuna erakustea.	- Planteamenduaren garrantzia eta koherentzia oinarrituz aurkeztu du lana eta lana egiteko prozesu orokorra egituratu du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C5. Eskuratutako ezagutzak Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzarekin lotutako zeinahi arlotako lanean aplikatzea.	-Esparru teorikoa eraikitzeke funtsezko iturriak hautatzen ditu: gaiari buruzko literatura eraginkortasunez zehazten du eta planteatutako helburuekin zentzuz lotzen du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C6. Informazioaren garrantzia ebaluatzea eta eskuratutako datuetan oinarrituta, iritzi arrazoituak ematea.	-Jasotako informazioa biltzen, aztertzen eta interpretatzen du eta planteamendu teorikoetan oinarritutako ondorio multzo bat sortzen du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C7. Ikaskuntza-trebetasunak garatzea, autonomia maila handia eskuratzeko; bai gerora egin daitezkeen ikasketei heltzeko, eta baita norbanakoaren prestakuntzari begira ere, etengabe aldatzen eta berritzen ari den arloan.	- Egoera bakoitzean ikaskuntza-estrategiak egokitzen ditu autonomoki.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C8. Ahozko eta idatzizko hitz-jariozko komunikaziorako gaitasuna erakustea.	- Zuzen idazten du eta adierazten da, hizkuntza zientifiko-teknikoa menderatuz.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C9. Eskuragarri dauden baliabideak eraginkortasunez izendatzea, IKTak erabiliz bere ikasketa arloan eta testuinguru profesionalean.	- IKTak modu egokiak erabiltzen ditu.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>

Gradu Amaierako Lanaren zuzendariaren oharrak	
--	--

“BETE BEHAR FORMALAK”

Hitzorduetara joatea	
Ikaslea irakasleak jarritako hitzorduetara joan da.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
Lanak egitea	
Ikasleak tutoreak adierazitako lanak egin ditu ezarritako epeen barruan.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
Interesa eta motibazioa	
Ikasleak interesa eta motibazioa erakutsi du lanak egiterakoan.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
Harreman begirunetsu eta adeitsuak	
Ikaslea begirunetsua eta adeitsua izan da tutorearekin.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
Konpromiso etikoa	
Ikaslea etikoki zuzena izan da lana egiterakoan.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
Kalitatea zaintzeko ardura	
Ikasleak lanaren kalitatea zaindu du eta lana ondo egiteko ardura hartu du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>

EPAIMAHAIAREN EBALUAZIO-TXOSTENA: 3.1. MUGARRIA: “AZKEN EBALUAZIOA”

(Aurkeztutako lanaren kalitatea)

GAITASUNA	ADIERAZLEA	BALORAZIOA
C1. Txostenak modu argian eta zentzuzkoan egitea, bidaltzea eta aurkeztea.	- Lana modu eraginkorrean bideratzen duen moduan egituratu du. Planteamenduaren garrantzian eta koherentzian oinarrituz aurkeztu du lana eta lana egiteko prozesu orokorra egituratu du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C3. Pentsamendu analitikorako eta gogoeta kritikorako gaitasuna erakustea.	-Esparru teorikoa eraikitzeke funtsezko iturriak hautatzen ditu: gaiari buruzko literatura eraginkortasunez zehazten du eta planteatutako helburuekin zentzuz lotzen du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C5. Eskuratutako ezagutzak Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzarekin lotutako zeinahi arlotako lanean aplikatzea.	-Graduan jasotako ikasketen edukiak aplikatzen ditu bere ikerketa lanean, edo estrategia, antolakuntza edo finantzaketa buruzko ikasketak aplikatzen ditu enpresa planen eraketan edo kontsultoria motako lanetan.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C6. Informazioaren garrantzia ebaluatzea eta eskuratutako datuetan oinarrituta, iritzi arrazoituak ematea.	-Jasotako informazioa aztertzen eta interpretatzen du adierazitako helburuetan oinarritutako ondorio multzo bat sortuz.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C8. Ahozko eta idatzizko hitz-jariozko komunikaziorako gaitasuna erakustea.	-Zuzen idazten du eta adierazten da, hizkuntza zientifiko-teknikoa menderatuz.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>

Gratu Amaierako Lanaren Epaimahaiaren oharrak	
--	--

EPAIMAHAIAREN EBALUAZIO-TXOSTENA: 3.2. MUGARRIA: "AURKEZPEN PUBLIKOA"

GAITASUNA	ADIERAZLEA	BALORAZIOA
C3. Pentsamendu analitikorako eta gogoeta kritikorako gaitasuna erakustea.	- Planteatutako galdera esanguratsuenak zehazten ditu eta horiei erantzuten die.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
	-Planteamenduaren garrantzia eta koherentzia oinarrituz aurkeztu du lana eta lana egiteko prozesu orokorra egituratu du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C8. Ahozko eta idatzizko hitz-jariozko komunikaziorako gaitasuna erakustea.	-Informazioa eraginkortasunez komunikatzen du ahoz: ondo egituratutako hitzaldia egin du, funtsezko elementuak aurkeztu ditu eta naturaltasunez aurkeztu du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
C9. Eskuragarri dauden baliabideak eraginkortasunez izendatzea, IKTak erabiliz bere ikasketa arloan eta testuinguru profesionalean.	-Lana sormenez aurkeztu eta defendatu du.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>
	-IKTak eta elementu grafikoak modu eraginkorrean erabiltzen ditu (grafikoak, taulak, multimedia elementuak, etab.	<i>Eskasa Onargarria Egokia Oso egokia</i>

Gradu Amaierako Lanaren Epaimahaiaren oharra	
---	--

KALIFIKAZIOA

Lana kalifikatzeko 0tik 10era bitarteko honako zenbaki-eskala hau erabiliko da. Dezimal bat adierazi beharko da, eta gainera, dagokion kalifikazio kualitatiboa ere gehitu beharko zaio:

- 0–4,9: Gutxiegi (G)
- 5,0–6,9: Nahiko (N)
- 7,0–8,9: Oso ongi (OO)
- 9,0–10: Bikain (B)

Deialdi batean defentsa egiteko eskubideari uko eginez gero, honela kalifikatuko da: “Ez aurkeztua”.

Ikasturteko Gradu Amaierako Lan guztiak kalifikatu ondoren, ikastegiak “Ohorezko matrikula” eman ahal izango die 9,0 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei, baina, betiere, gehenez ere Gradu Amaierako Lanaren defentsan kalifikaziorik onena lortu duten ikasleen %5ari.

Lana plagiatu egin dela ikusiz gero, UPV/EHUko Ikasleen Arautegiko 67.2 artikulua edo horren ordezko araua ezarriko da.

Gutxiegi kalifikazioa lortuz gero, Epaimahaiak txosten bat helaraziko dio ikasleari, eta lana hobetzeko eta ondoren ebaluatzeko gomendio egokiak egingo dizkio.

Ebaluazioaren berrikuspena Epaimahaiak berak egingo du lehenengo, eta gero, berriz, Ikastegiko Erreklamazio Batzordeak ebatziko du; haren ebazpenaren aurkako helegitea aurkeztu ahal izango zaio Unibertsitateko errektoreari, goragoko helegitea aurkeztuta.

Nolanahi ere, Gradu Amaierako Lanaren kalifikazioek irakasgai horretan matrikulatutako ikaslearen espedientean agertu beharko dute, urriaren 31 baino lehen.

Gradu Amaierako Lanen arloan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza bermatzeko asmoz, helburuen betetze maila neurtzera bideratutako hainbat mekanismo ezarriko dira. Besteak beste, Gradu Amaierako Lanari buruzko gogobetetze-inkesta bidaliko zaio ikasleari, hark betetzeko eta bueltan bidaltzeko. Emaitzak Gradu Amaierako Lanaren Batzordearen eskura jarriko dira, aztertzeko eta hobetzeko. Halaber, Gradu Amaierako Lanen zuzendariak eta Gradu Amaierako Lanaren Batzordea bilduko dira urtero, arlo horretan lortutako emaitzak ebaluatzeko.

ESTILO-GIDALIBURUA

1. Euskarri informatikoko dokumentua MS Word, Open Office edo PDF formatuan aurkeztu beharko da.
2. Honela idatziko da: tarte soilean, paragrafoen artean 6 puntuko ondorengo tartearekin, eta Times New Roman, Arial, Tahoma, Calibri edo Verdana 12 letra-tipoarekin (10 neurrian, aipu eta oin-oharretarako). Goiko eta beheko marjinak 2,5 cm-koak izango dira, eta ezkerreko eta eskuineko marjinak, berriz, 3 cm-koak.
3. Epigrafeen izenburuak zenbakituta egongo dira (zenbaki arabiarretan), letra lodian eta testuaren tamaina berean.
4. Laneko taulak eta grafikoak zenbakituta egongo dira hurrenez hurren, eta originalak izan beharko dute. Taula edo grafiko bakoitzak izenburu labur bat eduki beharko du eta oinean, haren iturriak adierazi beharko dira argi eta garbi.
5. Oin-oharrak zenbakituta egongo dira hurrenez hurren, karaktere arabiarretan eta testuaren gainean goratuta.
6. Testuaren amaieran, bibliografiaren zerrenda aipatuko da, egileen arabera alfabetikoki ordenatuta eta egile beraren hainbat lan egonez gero, berriz, kronologiaren arabera.
7. Aipu eta erreferentzia bibliografikoak APAren (Publication Manual of the American Psychological Association) azken edizioko arauen arabera egingo dira.

Nombre de archivo: GuiaDocente_PDI_eu_17_julio_2015.docx
Directorio: C:\Documents and Settings\Ainhoa\Escritorio\1\empresaSS\mail2207
Plantilla: C:\Documents and Settings\Ainhoa\Datos de programa\Microsoft\Plantillas\Normal.dotm
Título:
Asunto:
Autor: egpbegaj
Palabras clave:
Comentarios:
Fecha de creación: 22/07/2015 10:10:00
Cambio número: 2
Guardado el: 22/07/2015 10:10:00
Guardado por: ebpurcal
Tiempo de edición: 0 minutos
Impreso el: 22/07/2015 12:13:00
Última impresión completa
Número de páginas: 19
Número de palabras: 4.528 (aprox.)
Número de caracteres: 24.910 (aprox.)